



Ajangizko Udala

**AJANGIZKO UDALAK 2010EKO MARTXOAREN 18AN
OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2010eko martxoaren 18an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotzietan.

Batzarrarekin hasi aurretik, Alkate Udalburuak Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari hirigunetan trafiko isunak jartzeko konpetentziaren transferentzia egiteko erabakia ere zerrendaratzea proposatzen du.

Bertaratutakoek aho batez onartzen dute proposamena, eta laugarren puntu modura honako hau sartzea onartzen da:

“4.- Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari trafiko isunak jartzeko konpetentziaren transferentzia onarpena, behar bada”.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, bilera hasi du.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2009ko abenduaren 14an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2010eko urtarrilaren 14an izandako ez ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala

- **Abenduaren 4ko 122/2009 ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko aurrekontuan kreditu transferentzia egiteko espedientearen hasiera.
- **Abenduaren 7ko 2009/123 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kreditu transferentzia bidezko 2009/06 Kreditu Aldaketarako espedientearen onarpena.
- **Abenduaren 14ko 2009/124 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegirako diru-laguntzak.
- **Abenduaren 16ko 2009/125 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.A.E.k aurkeztutako eskaera onartu eta 2009ko abenduaren 11tik 2010eko martxoaren 1erarte etxeko laguntza zerbitzua etetea.
- **Abenduaren 18ko 2009/126 ALKATETZA DEKRETUA.-** 2009ko aurrekontuan Kreditu gaikuntza bidezko aldaketa egiteko espediente hasiera.
- **Abenduaren 21eko 127/2009 ALKATETZAREN EBAZPENA.-** 2009ko aurrekontuan kreditu gaikuntza bidezko aldaketaren onarpena.
- **Abenduaren 28ko 128/2009 ALKATEZAREN DEKRETUA.-** MTCri kota zerorarteko lan baimena ezeztatzea.
- **Abenduaren 30eko 2009/129 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.B.Z.ri euskara ikasteko diru-laguntza.
- **Abenduaren 30eko 2009/130 ALKATETZA DEKRETUA.-** 2009ko aurrekontua kreditu gaikuntza bidez aldatzeko espediente hasiera.
- **Abenduaren 30eko 131/2009 ALKATETZAREN EBAZPENA.-** 2009ko aurrekontua kreditu gaikuntza bidezko aldaketaren onarpena.
- **Abenduaren 31ko 2009/132 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Zabor bilketa zerbitzuaren 2009ko 4. Hiruhilabeteko padroiaren onarpena.
- **Abenduaren 31ko 2009/133 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2009ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa.
- **Abenduaren 31ko 2009/134 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalak 2009ko ekitaldian burutu dituen irisgarritasun lanen kostuaren onarpena.



Ajangizko Udala

- **Abenduaren 31ko 2009/135 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendietako frontoi estalia eraikitze proiektuaren erredakzioa eta ordainketa onartzea.
- **Abenduaren 31ko 136/2009 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko aurrekontua kreditu transferentzia bidez aldatzeko espediente hasiera.
- **Abenduaren 31ko 2009/137 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko aurrekontuaren kreditu transferentzia bidezko aldaketaren onarpena.
- **Abenduaren 31ko 2009/138 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gizarte zerbitzuetako laguntzaren onarpena.
- **Abenduaren 31ko 2009/139 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2006 urteko zordunpenganako kobratze eskubideen bertan beherako zehaztapidetza onartzea.
- **Urtarrilaren 11ko 2010/01 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 9ko 172/2009 Foru Dekretuak arautzen dituen 2010eko ekitaldian tokiko ekintza planak ezartzeko (tokiko agenda 21) diru-laguntza eskatzea, guztira 725.973,53 euroko kostuarekin, ekintzak 2010eko ekitaldiko udal aurrekontuaren gain burutuko direla onartuz (Mendietako frontoia).
- **Urtarrilaren 18ko 2010/02 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Francisco Ramón Atela Arana Epaitegietako prokuradoreak, Ajangizko Udalak kausa desberdinetan zabalik dituen auzo errekursoetarako probisioa onartzea.
- **Urtarrilaren 22ko 2010/03 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Idazkaritza artekaritza lanpostua betetzeko ohiko lehiaketaren oinarri espezifiko eta merezimendu berezien onarpena.
- **Urtarrilaren 25eko 2010/04 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Hiri Antolaketarako Plan Orokorren Aurrerakina eta bere ingurumenaren eraginari buruzko azterketa bateraturako azterlana bi hilabetez jendaurrean jartzeko erabakia.
- **Urtarrilaren 28ko 2010/05 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** MTC S.Coop.ek lurren mugimenturako eskatutako lizentziari ezetza.
- **Otsailaren 1eko 2010/06 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.C.B. eta M.M.k, Ajangizko Landalur katastroko 5. poligonoko 117 lurzatian igerileku ekologiko bat egiteko baimen eskaerari ezetza.



Ajangizko Udala

- **Otsailaren 1eko 2010/07 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.M.E.k eskatuta, Aiuti-goikoa baserria eraberritzeko lizentziaren titulartasuna aldatzeko onarpena.
- **Otsailaren 1eko 2010/08 ZENBAKIDUN ALKATETZA DEKRETUA.-** Aiuti Goikoa baserria eraberritzeko lanetarako lizentziaren luzapena onartzea.
- **Otsailaren 1eko 2010/09 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako eskaera kontutan hartuta, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko I. faseko lanek sortutako betebeharrei aurre egiteko jarritako behin betiko bermea itzultzea.
- **Otsailaren 1eko 2010/10 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegirako diru-laguntzak.
- **Otsailaren 1eko 2010/11 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.M.U.ri, Ajangizko Mendieta 51 etxeko fatxada berritzeko lanetarako baimena.
- **Otsailaren 3ko 2010/12 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Z.I.A.k egindako eskaera onartu eta 2010eko polikiroldegiko kuotaren familia ugarietzako laguntza ematea: $173,05 \text{ euroren } \%50^a = 86,52 \text{ €}$
- **Otsailaren 3ko 2010/14 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** MTCren anpliaziorako jarduera espedientearen aldeko informea.
- **Otsailaren 4ko 2010/14 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.M.U.k jarritako ofiziozko berrikuspen errekurtsuari ezetza ematea.
- **Otsailaren 5eko 2010/15 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maierek eraikuntzen legalizaziorako aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko eskaera.
- **Otsailaren 10eko 2010/16 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Construcciones Zabalandi S.L. eta Asfaltados y Construcciones Morga S.L. enpresek “U.T.E. Ajangiz” modura aurkeztutako ELKARGIren 30.979,04 euroko behin betiko bermea onartzea (otsailaren 4ko 2010/0564 bermea) eta behin betiko bermeak ordeztzen duen behin behineko bermea itzultzea: ELKARGIren 14.519,47 euroko bermea (2009/8125 bermea).
- **Otsailaren 10eko 2010/17 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Construcciones Intxausti S.A. enpresari, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko III. faseko lanen behin behineko esleipena behin betiko bilakatzea.



Ajangizko Udala

- **Otsailaren 15eko 2010/18 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Barrutia Eskualdeko Eskola Publikoaren Guraso Elkarteari, larehun eta berrogeita hamar (450,00 €) euroko laguntza ematea, eskolaz kanpoko orduetan burutzen diren ekintzetarako monitore kostuari aurre egiteko, 2010 urteko aurrekontuaren gain.

- **Otsailaren 15eko 2010/19 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegirako diru-laguntzak.

- **Otsailaren 15eko 2010/20 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.M.Z.k egindako eskaera onartu eta 2009ko polikiroldegiko kuotaren familia ugariantzako laguntza ematea: 106,90 euroren %50^a = 53,45 €

- **Otsailaren 15eko 2010/21 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** N.U.D.k egindako eskaera onartu eta 2009ko polikiroldegiko kuotaren familia ugariantzako laguntza ematea: 173,05 euroren %50^a = 86,52 €

- **Otsailaren 15eko 2010/22 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.U.U.k polikiroldegirako diru laguntza eskatuz aurkeztutako eskaera ez onartzea.

- **Otsailaren 15eko 2010/23 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.H.B.k polikiroldegirako diru laguntza eskatuz aurkeztutako eskaera ez onartzea.

- **Otsailaren 22ko 2010/24 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 77 Andoni Etxe inguruan burutzen ari diren txabola eraikitzeke lanak berehala etentzeko agindua eta eraikuntzaren legeztapenerako hilebeteko epe ematea.

- **Otsailaren 22ko 2010/25 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxuko Larruzea baserriko erretila konpontzeko baimena.

- **Otsailaren 24ko 2010/26 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Patricia Aja Fdz. De Retana andeari, Maier Technology Centre S.Coop. (MTC) enpresaren ordezkari den einean, lurrak aztintzeko baimena ematea, aurkeztutako dokumentazio grafikoan aipatzen diren lurzailetan.

- **Martxoaren 4ko 2010/27 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren erredakzio eta tramitaziorako 53.942,85 euroko gastua onartzea, 2010eko aurrekontuko 432.60900 partidaren gain.

- **Martxoaren 8ko 2010/28 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maiერი honako proiektu hauen lanetarako lizentzia baldintzatuak onartzea: “Proyecto de Nave Industrial (Sala de Cargadores)”, “Proyecto Técnico del Almacenamiento de Residuos de MAIER S. COOP.” eta “Proyecto de Pabellón de Cromado”.

- **Martxoaren 8ko 2010/29 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegirako diru laguntzak.



Ajangizko Udala

- **Martxoaren 9ko 2010/30 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.R.F.k egindako eskaera onartu eta 2010eko polikiroldegiko kuotaren familia ugarientzako laguntza ematea: 220,15 euroren %50^a = 110,07 €

3.- AJANGIZKO UDAL ERROLDAREN DATUEN BERRI EMATEA, BEHAR BADA.-

Ajangizko udal erroldak 2010eko urtarrilaren 1ean emandako datuak honexek dira:

- Biztanle kopuru orokorra: 450 biztanle.
- 250 gizon
- 250 emakume

Bertaratutako zinegotziek jakintzat hartu dute datua.

4.- EUSKO JAURLARITZAKO TRAFIKO ZUZENDARITZARI TRAFIKO ISUNAK JARTZEKO KONPETENTZIAREN TRANSFERENTZIA ONARPENA, BEHAR BADA.-

Trafiko, motordun ibilgailuen ziurkulazio eta bide-segurtasuna arautzen duen maiatzaren 2ko 339/1990 Erret Dekretu Legegileko testu artikulatuak 68.2 artikulua eta Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Lefeko 47.3 c) artikulua jasotakoaren arabera, Alkateak trafiko arloan isunak jartzeko konpetentzia aurrera eramateko duen udal zerbitzu eskasia kontutan hartuta (udal zerbitzuen eskasia honi atxikitako memorian kreditatzen da), bertaratutakoek onartzen dute:

Lehenengo.- Udalerriko hiri bideetan ziurkulazio arau haustek zigortzeko konpetentzia Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari transferitzea. Transferentzia honek gaur eguneko baliabide eskasia mantentzen den bitartean iraungo du.

Bigarren.- Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari jakineraztea bidezko efektuak sortu ditzan.

5.- MENDIETAKO FRONTOI ESTALIA ERAIKITZEKO LANEN ZUZENDARITZAREN ESLEIPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak azaltzen du, 2009ko maiatzaren 22ko 2009/43 Alkate Dekretuz, Ajangizen frontoi estali berria eraikitzeko proiektuaren erredakzioa eta lanen zuzendaritza kontratatzeko lehiaketa mugatuaren lehenengo saridun BIDEAK lemapean aurkeztutako proposamena aldarrikatu zuela, Octavio Pérez Monfort, Miguel Angel Nalda Ramírez, Edgardo García Ragazzi, Enric Farrerons García, Alex Borrás Ortega eta Juan José Valdecantos Nuñez, UTE Blur Arquitecturak aurkeztutakoa alegia.

2010 urteko aurrekontuan 48.372,00 euro aurreikusi dira frontoiko lanen zuzendaritzarako.

Aipatutakoaren arabera eta Octavio Pérez Monfort jaunak aurkeztutako aurrekontuan oinarrituta, lanen zuzendaritza Blur Arquitecturaren alde formalizatzeko proposamena egiten du Alkateak.



Ajangizko Udala

Adierazitakoa kontutan hartuta, bertaratutako zingotziek honako hau onartzen dute:

Lehenengo.- Ajangizko frontoi estalia eraikitze lanen zuzendaritza proiektuaren erredakzio eta zuzendaritzarako lehiaketan garaile izan zen Blur Arquitecturaren alde formalizatzea, guztira 48.372,00 euroko kostuarekin.

Bigarren.- Erabaki honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

6.- MENDIETA AUZOKO HERRIKO PLAZA EGOKITZEKO LANEN PROIEKTUA ETA BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, 2010eko urtarrilaren 21ean, Mendietako plaza egokitzeko proiektua onrtu zuen 48.108,00 euroko kostu orokorrarekin. Bilkuran berean, proiektua urriaren 26ko 13/2009 Erret Dekretu Legeak araututako diru-laguntza deialdira aurkeztea onartu zuten bertaratutako hautetziek.

Lurralde Kooperaziorako Estatu Idazkariaren 2010eko otsailaren 22ko Ebazpenak, proiektua onartu eta Ajangizko Udalari 48.108,00 euroko diru-laguntza onartu dio, urriaren 26ko 13/2009 Erret Dekretu Legean oinarrituta.

Espedientea osatzen duten txostenak aztertuta, urriaren 26ko 13/2009 Erret Dekretu Legeak araututakoa jakinda eta Mendietako plaza egokitzeko proiektua aurrera eraman asmoz, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

Lehenengo.- Mendietako plaza egokitzeko lanak publizidaderik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatze espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea, baita 48.108,00 €ko gastua ere.

Bigarren.- Proiektua eta preskripzio teknikoen orria onartzea.

Hirugarren.- Aipatu espedientearen urjentzia aitortzea, Sektore Publikoko kontratuen legeko 96 artikuluan jasotzen diren ondorioak aplikatuz.

Laugarren.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

7.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkate Udalburuak Agenda 21etik frontoirako diru-laguntza eskaera ezeztatu egin dutela aipatzen du. Lan hauetarako diru-laguntzak lortzeko asmoarekin datorren astean batzar bi antolatu ditu, bata Foru Aldundiko Kirol alroko zuzendariarekin eta bestea Patxi Siera Udal harremanen eta herri administrazioarako Foru Diputatuarekin.

- Alkate jaunak, Maiarren legalizazio prozedurren berri ematen du. Maierrekin hiru proiektu aurkeztu zituen legeztapenerako:



Ajangizko Udala

- Proyecto de Nave Industrial (Sala de Cargadores)
- Proyecto Técnico del Almacenamiento de Residuos de MAIER S. COOP.
- Proyecto de Pabellón de Cromado

Proiektuak martxoaren 8ko 28/2010 Alkate Dekretuz onartu dira, baina ez dituzte aurrekontuak aurkeztu. Dekretuak berak hamabost eguneko epea eman dio Maierri aurrekontu eguneratuak aurkezteko, horren arabera zerga eta tasak likidatu ahal izateko.

- Maierrekin jarraituz, Alkateak MTCri gaur eman zaiola anpliaziorako baimena aipatzen du. Jarduerarako baimena Ura eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak jarritako baldintzekin eman zaio, eta horrez gain Udalak lanetarako baimena ere eman dio. Baimenak zerga eta tasen behin behineko likidazioa ere ekarri du.

Jabier Berrojalbiz jaunak Maierrekin hitzarmena sinatzea komeni dela aipatzen du.

Carbonell jaunak, bi hilabetero Maierri Ajangizen langabezia daudenen zerrenda bidaltzen diola aipatzen du, eta oraingoz lanerako zerrenda horietan jasotakoak hartzen dituztela lanerako. Maierrekin fondo sozialaren kudeaketarako ere harremanetan dabilela aipatzen du.

- Frontoiko lanak direla eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Patrimonio Historikoaren baimena lortzeko, alineazioak zuzentzeko proiektuan aldaketa batzuk egin behar izan direla azaltzen du Alkate Udalburuak. Gainera lanak hasi aurretik akta notarial bat ere jaso da elizaren eraikuntzaren berri izateko, gero arazorik sortu ezker lanek zer sortu ahal izan duten eta zer ez argi usteko. Lanak aste honetan hasi dira. Hemen ere langileren bat hartzekotan omen daude, aurretik eraikuntzan aritu izan den langile bat eskatu omen dute.

- Roman Etxeandia zinegotzi jaunak Uruburuko saneamenduarekin zer gertatzen den galdetzen du.

Alkateak Javier Bilbaori arazoa konpontzeko behin eta berriz eskatu zaiola azaltzen du, eta bere erantzuna baiezkoa izan dela. Orain arte euria dela eta lanak burutu ezin izan dituztela aipatu izan du Bilbaok, baina bada zenbait denbora euririk gabe eta ez dute ezer egin.

Ajangizko Saneamentu proiektuari jarritako alegazioen erantzunei buruz ere galdetu zaio Partzuergoari Alkatearen esanetan. Batxi Aranbururekin hitzegin zuela aipatzen du eta erantzunak prestatzen omen dabiltzala esan dio, laster bidaliko zituztela.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatziak direnean, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA